



ARESOko UDALA

ALKATE EBAZPENA 11/2021

Areson, 2021eko otsailaren 12an.

GAIA: EUSKARA EZAGUTZA BETEKIZUNA IZANEN DUEN ZERBITZU ANITZETAKO LANPOSTUAN HARITZEKO IZANGAIEN ZERRENDA, HAUTAPROBEN HAUTAGAIEN ZERRENDA BEHIN BETIKO ONARTZEA

JOSE OTERMIN ECHARRI, Udalerri honetako Alkateak, Toki- araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 21.artikuluak onartzen dion gaitasunean oinarritua, honakoa

ADIERAZTEN DU:

LEHENENGOA.- 2021eko urtarrilaren 18ko 4/2021 Alkate Ebazpen bitartez, euskara ezagutza betekizuna izanen duen zerbitzu anitzetako lanpostuan haritzeko hautapropa bidezko izangaien zerrenda osatzeko aukera emango duen deialdia onartu zen.

BIGARRENA.- 2021Eeko otsailaren 8ko 9/2021 Alkate Ebazpenaren bitartez, deialdiko hautagaien behin behineko zerrenda onartu eta euskara frogaren data jakinarazi zen.

HIRUGARRENA.- 2021eko otsailaren 11an Euskara bideak gauzatu dituen frogen aktaren arabera, hauek izan dira emaitzak:

Abizenak	Izena	Euskara froga gauzatu behar
Ariztimuño Huici	Pedro M ^a	GAI
Lasarte Baraibar	Jose Luis	GAI
Muxika Alduntzin	Hanot	*Ez covid-19an ezarritako legezko kuarentenak aurkeztea ekidin dio

LAUGARRENA.- 2010eko otsailaren 11an ospatutako batzarrean Aresoko Udal taldeak, ez-ohiko pandemia egora honek sortutako ondorioen berezitasuna dela eta euskara froga bestelako egun batean gauzatzeko aukera ematearen aldeko azaldu da.



ARESOko UDALA

Era berean, azterketa data printzipioz ez dela aldatuko adostu da; eta beraz, azterketa praktikora aurkezteko aukera ez dutenek, oinarrietan adierazitako deialdi bakarreko izaera dela eta, bazterturik geldituko liratekeen hautagaiak. Euskara froga gainditu izan hala ez. Horrekin batera, euskararen ezagutzaren izaera baztertzailea dela eta, gerora egin daitekeen frogetan gaindituko ez balute, baztertuak izango liratekeen.

Hori dela eta, ondokoa

EBAZTEN DU:

LEHENENGOA.- Jarraian jasotzen diren hautagaien zerrenda behin betiko onartzea:

Abizenak	Izena
Ariztimuño Huici	Pedro M ^a
Arraras Usabiaga	Luis M ^a
Lasarte Baraibar	Jose Luis
Otermin Eguia	Aritz
Vega Fures	Rafael
Zabaleta Garin	Miguel Javier

Izaera baztertzailea duen euskararen ezagutza ziurtatzeke dutenak:

Abizenak	Izena
Muxika Alduntzin	Hanot

BIGARRENA.- Deialdiko 2.1. oinarrian jasotako baldintzak ez betetzeagatik ez da inor baztertzen.

HIRUGARRENA.- Deialdiko 5.1 oinarrian akats bat antzeman dela jakinaraztea: hirugarren kideari dagokionez islatzen dena okerra da, hirugarren mahaikidea Iruñeako Udaleko zerbitzu aniztako langilea dela jakinaraztea.



ARESOko UDALA

LAUGARRENA.- Azterketa: **2021eko otsailaren 19a, ostirala, goizeko 09:00etan Aresoko Udaletxean** izanen da.

Azterketaren lehen ariketa teorikoa eta ariketa praktikoa egun berean gauzatuko dira. Lehen ariketa teorikoa egin eta gero, epai mahaiak zuzendu eta egunean bertan emaitzak azterketa garatuko den tokian eta iragarki oholean argitaratuko ditu.

Deialdia 7.3.a) oinarrian ezarritakoaren arabera 20 puntu lortzen ez duten hautagaiek ez dute bigarren ariketa praktikoa parte hartzeko aukerarik izanen.

Lehenengo ariketa teorikoan gutxienez 20 puntu lortu duten hautagaiek jarraian ariketa praktikoa banaka, orden alfabetikoa errespetatuz, gauzatuko dute. Froga hauen emaitza azterketa garatuko den tokian eta iragarki oholean argitaratuko ditu.

Azterketara NANarekin bertaratzea derrigorrezkoa da.

Azterketa gauzatzerako orduan, Covid-19ak sortutako pandemia egoeraren baitan bete beharreko osasun neurriak uneoro errespetatu beharko dira.

BOSGARRENA.- Covid-19ak sortutako pandemia eta osasun krisi egoeraren baitan, salbuespen moduan Hanot Muxika Alduntzini azterketa egitea onartzea, nahiz eta ebazpen onen egunean ez duen euskararen ezagutza ziurtatu. Azterketara aurkeztuko balitz eta hori gaindituko balu, lanpoltsan barneratua izateko beharrezkoa izango du euskara ezagutza ziurtatzea. Ziurtatuko ez balu edota ez gai suertatuko balitz, ez du lanpoltsan barneratua izateko eskubiderik izanen.

SEIGARRENA.- Interesdunei jakinarazi euren ezagutzarako eta behar den tokian ondorio egokiak sor ditzan.

Areson, 2021ko otsailaren 12an

ALKATEA

Jose Otermin Echarri

IDAZKARIA

Inge Zelaia Zubikoa

Horren guztiaren berri izan dezazun eta dagozkion ondorioak sor ditzan jakinarazten dizut; deialdi honen aurka errekurso hauetakoren bat jarri ahalko da:

- 1.- Aukeran, eta beti ere hilabeteko epean, Berraztertzeko errekurtsua, egintzaren organo egileari zuzendua, edo Gora jotzeko errekurtsua, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua.
- 2.- Administrazioarekiko auzi-errekurtsua, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Sailari zuzendua, bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita, aurreikusitako kasuetan salbu.